

ALAITZ ETA MAIDER

Alaitz Telletxeak (Oiartzun , Gipuzkoa, 1976) eta Maider Zabalegik (Oiartzun,1976) sortu zuten Alaitz eta Maider izeneko trikitilari taldea 1989an.Taldea 2004an desegin zen.

Triki-pop estiloa sortu zuten.

1997an atera zuten lehen diskoa, *Alaitz eta Maider* izenburuarekin (Elkar). Arrakasta berehalakoa izan zen. Emanaldiak biderkatu egin zitzaizkien eta jende ugari joaten hasi zen beren kontzertuetara.

Plazaratutako diskoak hauek dira:

- Inshala 1999 an
- Auskalo 2002 an.

Kantu ospetsuak:

- Txanpon baten truke.
- Amets bat.
- Foiki Linza.
- Mila galdera.
- Ispilu aurrean.
- Larunbata astean.
- Lehen hegada.
- Bota bexamela.
- Haren begirada.
- Diruaren begirada.

Kantua hemen duzue: Txanpon baten truke.

<https://www.youtube.com/watch?v=Ju44uWJs-z4>

Hitzak

Ezagutzen dut gizon bat

Kale kantoian jarrita

Ipuin harrigarriak

Kontatzen dituen

Dragoi eta printzesaren

Ezinezko maitasuna

Mendietako basoko

Lotiaren azken eguna

Ume urdinak abandonatuta

Txano Gorritxuren dibortzioa

Otsoaren suizidioa

Ezagutzen dut gizon bat

Kale kantoian jarrita

Ipuin harrigarriak

Kontatzen dituen

Jendeak presaka dabil,

Ordea entzuteko

Astirik ez dauka

Aspaldiko garaietan,

Urrutiko lurraldeetan

Gertatutakoak istorioak

Txano Gorritxoren dibortzioa

Otsoaren suizidioa

Ezagutzen dut gizon bat

Kale kantoian jarrita

Ipuin harrigarriak

Kontatzen dituen

Txanpon baten truke...

Txanpon baten truke...

Txanpon baten trukea

Txanpon baten trukea

Txanpon baten truke.

Egileak: Oier Ugartemendia eta Eneko Zelaieta

